



Andraizea

Irati Goikoetxea

n a r r a t i b a

errein

ANDRAIZEA

Narratiba, 85

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezka kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2014ko urrian

Maketazia:

Erein

© Irati Goikoetxea

© EREIN. Donostia 2014

ISBN: 978-84-9746-887-9

L. G.: SS-1288/2014

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Irati Goikoetxea

ANDRAIZEA



erein

*Ekaitzi,
barealdiengatik. Eta arrastoarengatik.*

CARMEN

- O**ndo zaude?
—Bai.
—Benetan?
—Bai.
—Ez daukazu aurpegi onik.
—Zoaz pikutara.
—Hemen geldituko al zara?
—Bai, pixka batean bai.
—Hor konpon ba! Aio!
—Zoaz pikutara.
—Hori lehen ere esan didazu. Aio!
—Agur bai.

Beheko solairutik Raulek ez du Koldoren irribarre etsia ikusi, baina, halere, besoak altxatuta egin dio eserita burumakur gelditu den lagunari agur. Gustura altxatuko luke eskuarekin batera lagunaren animoa, baina gaur nekatuta dago. Ia egunero bezala. Gaur bereziki dago nekatuta, zergatik ez badaki ere. Goizeko zazpietan esnatu da, apenas aho-ratu duen mokadurik gosalorduan, eguerdiko ordu bietan ordu erdiko geldialdi txiki bat eta lanean aritu da orain arte. Egunero bezala. Arratsaldeko zortziak dira. Eta zergatik ez dakien arren, gaur nekatuago sentitzen du gorputza,

edo gogoa. Edo nork jakin! Beharbada aitzakia hutsa da, Koldoren ondoan ez gelditzeko bere buruari saldu dion aitzakia. Egia esan, ezingo luke jasan beste bost minutuz Koldoren ondoan jarraitu beharra. Ez, gaur ez. Gaur doala bera pikutara!

Laura haserre egongo da. Gaur ere berandu iritsiko da Raul etxera. Eta esku hutsik gainera. Akaso arrosa zuri bat. Edo bi lerro eta erdiko olerki biluzi bat bestela. Ematekorik balu sikiera. Lehen opari txikiak egiten zizkion etxera itzultzean, egunero ez bazen, aldika. Baina aspaldian ez da arrosarik zuritzen etxe ondoko lorategian, eta bi hitz eta erdiko olerkiak nekatuegi iristen zaizkio paper gainera. Aspaldian hutsik iristen diren eskuetara Laurak ez dio begiradarik zuzentzen, eta Raul beldur da Laura hustasun horretara ohitu ez ote den. Gaur ere berandu doa etxera, eta Laura haserretu egingo zaio. Ez berandu doalako bakarrik, etxeko sarraila konponduko zuen norbait topatuko zuela agindu dio goizean eta esku hutsik doa. Bilatu ere ez du inor bilatu; egia esan, gogoratu ere ez da egin sarrailaz egun osoan.

Pentsa zezakeen, baina ziur aski ez zuen onartu nahi izan. Zer espero zuen ba? Merke erosten direnak denborak garestitzen ditu. Eskaintza polita zen, merkea; bere neurrikoa. Hutsaren parekoa. Erosi aurretik bisitatxo bat egin izan balio... Aitak jarri zuen jakinaren gainean Portugaldik bazihoala esan zionean. “Baina nora hoala uste duk, han ere, hemen bezala, zakurrak ortozik! Han ere, hemen bezala,

inork ez dik ezer oparituko!”. Pentsa zezakeen, bai, etxe hark ere ezin zuela opari izan, baina estalpe bat zor zion Laurari. Eta bere buruari. Ez zuen onartu nahi izan, ordea, estalpea bera izango zela zorrak eragingo zizkiona. Bi aldiz pentsatu izan balu...

Hiru egun daramatzate sarraila puskatuta. Egun osoa egiten du Laurak etxean. Badaezpada ere. Inor sartuta ere, ez luke eramateko moduko ezer topatuko, baina Raulek garbi utzi zion neskari “Zu ez irten kalera. Badaezpada ere”. Horregatik ere haserre dabil Laura azken bi egunotan.

Urduri iritsi da Raul etxera. Eta urduriago jarri da poltsikoan giltzak bilatu eta aurkitu ez dituenean. Keinu tentel bat izan da, berehala konturatu baita goizean ez duela giltzarik hartu. Atea zabalik topatu du; zirrikitu txiki ilun bat soka zuri bati lotua. Edo ez daki soka ez ote den zirrikituari lotua dagoena. Sokari tira egingo balio, zirrikituak duen xarma galduko luke. Umea zela ikasi zuen hori, uda hondartzaren ondoko herrian pasatzen zuen garaian. Aitak amonaren herrira joango zirela esaten zionean, herria (hondartza eta guzti) amonarena zela ulertzen zion berak, horregatik ez zutela sarrailarik amonaren herriko etxeek. Guztia amonarena zelako. Berari hain handia iruditzen zitzaion putzu ziztrin hura hondartza bat ez zela jakin zuenean, ate ondoretako zirrikitu guztiak soka zurien bueltan urkatu zirela konturatu zen. Herria ez zen amonarena eta zirrikitu ilunak

sarrailarik eros ezin zezaketenen betaurreko beltzak ziren. Halaxe bota zion aitari, berak ez zuela gehiago benetako itsasoaren erdia ere ez zen putzu hartara joan nahi. Benetako itsasoarena Ricardok aipatu zion besoak zabal-zabal eginda, itsasoa horrelakoa zela azaldu zionean. *Imenso*. Izugarria.

Aitarekin eta amonarekin pixka bat haserretu bazen ere, gozo oroitzen ditu orduko garaiak. Gerora betaurreko beltzak janzten ikasi ez duen arren, orduan izugarri gustatzen zitzaion amonaren etxeko zirrikitu ilunean begiei erortzen uztea. Barruan zenbat eta ilunago, orduan eta denbora gehiago pasatzen zuen begira. Gustatu egiten zitzaion egoera hark eragiten zion zirrara. Misterioa. Amonak erantzuten zionean bukatzen zen jolasa. Amonak erantzuten ez bazion, putzuraino joan, hamabost minutu kontatu eta berriro egiten zuen amonaren etxerainoko itzulia. *Abozinha! Abozinha!* Eta bigarreanean, bai. Bigarreanean amonak erantzuten ez bazion, orduan tira egiten zion soka zuriari. Eta zirrikitu ilunak bere xarma galtzen zuen.

Tira egin dio sokari, doala pikutara zirrikituaren xarma. Bihar bertan saiatuko da sarraila konpontzen. Ez da erraza izango, ordea, musu-truk lagunduko dion bakarren bat topatzea. Koldok akaso, Koldok lagunduko dio.

Sukaldean ez. Bainugelan ere ez. Ohea zimurtu gabe dago. Laura! Laura! Ez da gau osoan azaldu. Eta Raulek gau osoa pasatu du Lauraren oharren baten bila. “Nazka-nazka

eginda nago zurekin. Eta baita zirrikituz beteta dagoen etxe honekin ere. Nazka-nazka eginda. *Farto. Farto. Que ja nao possou mais*”. Ezin dut gehiago. Horrelako zerbait aurkitzea espero zuen Raulek, baina ez du horrelakorik topatu. Ez du ezer topatu. Eta iratzargailuak esna atzeman du goizean. Begiak zabalik, ezerezarekin ametsetan. Elkarrekin hasi zirenetik, lehenengo aldia da Laurak bere ondoan lo egin ez duena. Armairu itxura duen kaxa handiaren barruan begiratu du atzera lanera joan aurretik. Bai, Lauraren kulero beltzak falta dira, eta Rauli horrenbeste gustatzen zaion kamiseteta zuria.

–Ondo zaude?

–Bai.

–Benetan?

–Bai.

–Ez daukazu aurpegi onik.

–Zuk ere ez.

Guraizeak hartu eta gauari orduak moztu dizkiotela dirudi. Iluntzean elkarri agur esan ziotenean zuten aurpegiera bera dute biek. Baina goiza da. Eserita dago Koldo oraindik. Edo berriro. Burumakur. Eta ondoan eseri zaio Raul. Lasai egoteko astia dute, hamar minutu barrura arte ez baita Mikel azalduko. Enkargatua. Belaun artetik besoak luzatu eta lurrean pilatutako hautsarekin jolasean ari dira. Bi itzal erori dirudite; eroritako itzalak, ordea, mugitu egiten dira, eta arrastoak marrazten dituzte zoruaren gainean. Mikel iritsi denean, marrazkiaren gainean jarri ditu oinak. Ez da konturatu hauts arrastoek osatzen duten irudiarekin, eta konturatuta

ere, ez luke asmatuko Portugalgo maparen gainean jarri dituela zangoak. Eta jarri duela pisua.

–Eguerdirako hau guztia garbi. Zoko hori itxuratu behar duzue gaur. Eta ez dut inor beroaz kexu ikusi nahi. *Concurdar?*

Koldok eskua luzatu dio Rauli. *Concurdar.* Bai, ados. Beharko. Koldo izan zen Mikelengana lan eske joan zena. Eta Koldo bera Rauli lana eskaini ziona.

–Bi lagun behar omen dituzte.

–Eta baldintzak?

–Baldintzarik gabe. Hartu ala utzi.

–Eta?

–Nik hartu egingo dut.

–Bai, baita nik ere.

Sei hilabete daramatzate lanean. Sei hilabete babes ofizialeko etxebizitzan eraikina altxatzen hasi zirenetik. Kontratua sinatu zuten egunean bazkari txiki bat egin zuten biek. Ezer berezirik ez, bi ogitarteko eta baxoerdi bana. Eta ospatu izanaren sentsazioa. Nahikoa, egun batez bederen berezi sentitzeko.

–Nola esan du?

–Kol-do. Koldo.

–Hortaz, hemendik aurrera Koldo izango naiz. Baita zuretzat ere.

–Bai, Luis. Bai, Koldo.

Hamaika ordurekin hasi ziren eta hamabi egiten dituzte orain. Gizon lehorra da Mikel. Baldintzarik gabeko gizona. Eta horrek guztia baldintzatzen die langileei. Hartu ala

utzi. Denek hartu egiten dute, ordea. Begirada zorrotza du, estua. Bere garaian izen berria jarri izan ez balio, aspaldian etsita egongo zela pentsatzen du askotan. Kol-do. Izugarri gustatu zitzaion. Portugalgo familiari ere harro jakinarazi zion. Koldo izango zela handik aurrera. Enkargatuaren agindua zela hura. Iloba txikia da agindua behar bezala betetzen duen bakarra. Garrasi egiten dio telefonoz hitz egiten duten bakoitzean. Tio Koldo! Baina oihartzunak, maltzur, Luis, Luis, Luis, Luis egiten dio Portugal urrunetik.

Isilik pasatu dute goiza elkarren ondoan. Atsedetik hartu gabe. Ordu bietan gelditu egin da Koldo. Ordu biak diren ustean. Aspaldian ez baitarama erlojurik eskumuturrean, eraikuntzan lanean hasi zenetik, hamabi orduko lanaldiak egin behar izaten dituztenetik. Ikusten ez duen erlojuari iruzur egin diezaiokeela iruditzen zaio, eta berak joatea nahiko lukeen abiaduran joaten dela denbora. Gaur goizeko minutuak azkarregi zenbatu ditu, berak nahi bezain azkar, baina azkarregi.

—Oraindik ordu biak hamar gutxi dira —esan dio Raullek aurpegi nekatuarekin. Zaharra da Raulen erlojua. Oso zaharra.

Koldok prismatiko itxuran jarri ditu eskuak begien aurrean, eta urrutira baino nahiago izan du gertura begiratu. Ez du Mikel ikusi.

—Berdin dio. Nazkatu naiz. —Eta eseri egin da Raul aldamenean eseriko zaion ziurtasunarekin.

Hogei minutuko atsedenaldea. Ordu erdikoa hartzen dute beraiek. Ordularia aurreratu egiten zaielako ordu biak

iristear direnean. Gaur bazkaria etxean ahaztu du Raulek. Ez da lehenengo aldia. Gaur, ordea, etxera itzultzen denean, ez du ogitartekoa mahaiaren gainean topatuko. Gaur prestatzea ere ahaztu egin zaio, gosaltzea ahaztu zaion bezalaxe. Eta goserik sentitzen ez duen arren, ohartzera, Koldok emandako ogitarteko zatiari haginka ikusi du bere burua. Berandu konturatu da piper berdea ez duela gogoko.

–Ez dago hain txarra.

–Ona dago.

–Beno.

–Eta? Zure ogitartekoa?

–Goserik gabe nabil egunotan.

–Ondo zaude?

–Bai.

–Ez duzu aurpegi onik –mendekati Koldok.

–Lo gutxi egin dut.

–Ondo zaude?

–Beno.

Raulen burua Lauraren atzetik dabil, ihesi; horregatik erantzuten dio hain hotz lagunari. Hain motz. Eta ohitura hori dutelako. Horrelakoak izaten dira bi lagunen arteko el-karrizketak. Motzak. Eta hotzak.

–Ikusi al zenuen atzoko partidua?

–Ez, nahiago izan nuen ohera joan. –Raulek ez du te-
lebistarik etxean, baina hori gutxienekoa da, berea izan bai-
tzen ohera joateko erabakia–. Eta zuk? Zuk ikusi al zenuen?

–Bai, partidu bikaina izan zen. –Raulek susmoa hartu
dio. Koldok partidua ikusi ez zuen susmoa. Azken finean,

berak gezurra esan badio, zergatik esan behar zion lagunak egia?

–Egunen batean elkarrekin ikusi beharko dugu partiduren bat.

–Zurean ala nirean?

–Zurean.

–Ez, hobe zurean.

Portugalen ere oso gutxitan ikusten zuten telebista biek ala biek. Baina hori ez diote sekula elkarri kontatu. Futbolaz askotan hitz egin izan dute, baina telebistaz apenas. Raulek telebista bakarra ezagutu zuen etxean. Bigarren eskuko telebista zahar bat; auzokide batek bota egin behar zuela-eta opari jaso zutena. Kate bakarra ikusten zen eta hura zuri-beltzean, baina, halere, arratsaldero-arratsaldero afal aurretik telebistaren aurrean esertzen zen Raul, begien kolorea ezagutu ez zion aurkezlea ikustera. Berak urdinak margotu zizkion irudimenean. Futbol partiduak ikustera taberna zulo batera joaten zen, eta hantxe ezagutu zuen Laura beste batekin musuka. Beharbada horregatik ez dio inoiz Koldori kontatu nola ezagutu zuen Laura, taberna zulo batera joan behar izaten zuelako futbol partiduak ikustera, etxeko telebistan ez zelako garbi ikusten baloia noiz joaten zen sare artera eta noiz kanpora. Etxean telebistarik gabe gelditu zirenean erabaki zuen Portugaldik urruti heldu beharko ziola etorkizunari, eta egun batean telebista on bat besapean hartuta itzuliko zela zin egin zion aitari. Baina aitak arrazoi, auzokideak utzitako kolorerik gabeko telebista ez zen opari bat izan, eta oraindik telebistako aurkezleari begien kolorea

margotu ezinda dabil. Hemen ere ez dio inork telebistarik oparitu. Aitari deitu zion batean oso ongi zegoela esan zion, laster jarriko ziola telebista bidean. Baina pasatu dira bi urte eta ez du ordutik aitarekin berriro hitz egin. Etxekoei gezurra esaten ere jakin egin behar da, eta berak horretarako ere ez duela balio konturatuta dabil aspaldian. Batzuek aha-lerin berezia egin behar izaten dute telefono zenbakiak gogoratzeko; Raul, ordea, azken bi urteotan etxekoekin harremanetan jarriko zuen zenbakia ahazten tematu da. Telefonora hurbildu izan denean, zalantza egin izan du zenbakiaren azken zifrarekin. Ez daki ziur laua edo bosta den telefono zenbakiari ipurdian ostiko ematen diona, eta hankarik ez sartzearren, bi urte daramatza etxekoekin hitz egin gabe. Aitari ez dio berriro oso ongi dagoenik esan. Ezta bere buruari ere. Koldok berarekin lan egin nahi ote zuen galdetu zionean, mesfidati esan zion baietz. Ez zuen Koldo batere ezagutzen. Portugaldarra zela, ez zekien besterik. Baietz esan zion halere, ziur aski galtzeko ezer ez zuelako. Bi urteren buruan mesfidati sentitzen da berriro, Laura galdu izanaren irudipena du. Koldori, ordea, ez dio ezer kontatu, bi urteren buruan oraindik ez duelako aldameneko laguna ongi ezagutzen, horregatik erantzuten dio baietz ongi dagoen galdetzen dionean. Azalpen berezirik ez ematearren, Koldo lagunago ez egitearren.

Bero egiten du. Zakarra doa ekaina. Bazkal orduko atsedena urruti gelditzen denean, atsedean txikiak egiteko ohi-tura dute biek, beti eta Mikel gertuan ez badabil behintzat. Koldok buruan zintzilik duen zapiari tira egin eta kopetako

izerdia lehortzeko erabili du. Solairuaren barneko aldean ari dira egunotan lanean, eta kanpoaldera joaten dira haize garbi pixka baten bila. Hirugarren solairuan ari dira, oraindik leihoak egin gabe dituen etxean. Datorren astean hasiko dira kanpoko pareta itxuratzen.

Etxearen izkina batean eseri dira. Koldok badaki seiak gainean direla, Raulek ordulariari hiru aldiz begiratzen dion garaia izaten delako. Ordu horretan pasatzen da Carmen etxepeko kaletik. Bi aste daramatza Koldok Carmeni begira, horregatik esertzen da arratsaldero-arratsaldero seiak inguruan izkina horretan. Bitxia da, baina Koldok ere irrika berezia sumatzen dio Rauli ordu berean. Hiru aldiz begiratzen dio ordulariari, eta bera ere gogotsu egoten da une horretan atsedean hartzeko.

–Zer, neska ilehoria gustuko duzu ala?

–Nik? Ez.

–A.

–Eta zuk?

–Nik, zer?

–Ea gustuko duzun.

–Gustuko nor?

–Joder, neska ilehoria!

–A, ez. Zergatik?

Ilehoria da eta ez oso altua. Bi aste daramatza Koldok esku ahurra luzatu eta hatz puntekin emakumearen garaiera kalkulatzeko. Ez da oso altua. Bere tamainakoa gutxi gorabehera. Ez zaizkio sekula bera baino altuagoak diren emakumeak gustatu. Baxuagoak ere ez. Beharbada horregatik ez